

Komunitateaz, komunitatearekin

ARGIAREN proiektuaz, produktuaz, etorkizunaz hitz egiteko topagune bilakatu zen Usurbil irailaren 27an, eta komunitatearengana gerturatzeko aprobetxatu genuen.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Euskal Herriko hainbat tokitatik gerturatutako argiazale, lagun eta irakurleak bildu ginen Usurbilen Argia Egunean.

ARGIA KOMUNITATEA oinarri hartuta lehen harria jarri genuen irailaren 27an Usurbilen, Argia Egunean, denon artean eraikitzen jarraitu nahi dugun proiektuarekin. Ekintza ugari osatutako egitaraua aurkeztu genuen, guztiak ere filosofia baten

inguruan prestatuak, eta egun guztian zehar presente izan genituen gure lagunei, lankideei, irakurleei zabaldu nahi dizkiegun eta gure etxeak dituen baloreak: lurraldetasuna, parekidetasuna, partehartzea, euskaltzaletasuna, jasangarritasuna,

na... “Jende txiki askok, leku txikietan gauza txikiak eginez mundua alda dezakete”, zioen Axier Lopez lankideak egunaren hasieran, frontoiko pankarta bati aipamena eginez. 1919an *Zeruko Argia* bezala sortua, koska ugari pasea, teknologia



berrietan murgildutako garai haue-
tara moldatzen ari da. Baina bide
horretan ematen ari garen pausoak
ez ditugu soilik gaur Argia osatzen
dugunon artean erabaki nahi, ira-
kurlea eta harpidea baitira gure
proiektuaren hauspo. Gardentasu-
nez jokatu nahi dugu Argiazaleare-
kin eta proiektuaren parte sentiarazi
nahi dugu, denon artean
komunikabide sendo eta indepen-
dente bat osatzeko. Horren harira
antolatu genuen irailaren 27an
Usurbilen Argia Eguna, Argiazale
guztion elkargunea, egun bat
Argiaren baloreetan. Ez kasualitatez
Usurbilen, lehen ere egin bai-
tzen Argia Egunik herri horretan-
txe. Orduan ere Usurbilgo
Argiaren lagunak ez ziren urruti,
eta taldea omenduz ekin genion

larunbat argitsuari. Baina hitzez
behin eta berriz aipatu genituen
arren, ekintzetan, praktikan eraku-
tsi nahi izan genituen jomuga
horiek; aldarri ditugun balore
horietan oinarrituta irudikatzen
dugun ereduan egun batez bada
ere bizitzeko aukera izan. Txikitik
egindako gauzak baloratu, globa-
lean pentsatu eta txikian ekin.

**Usurbilen, praktikan
erakutsi nahi izan genituen
gure baloreak**

Darpidegu!

Komunitate oso baten topagune
bilakatu zen egun batez Usurbilgo

dema plaza, elkarrekin proiektu
komun bat eraikitzeko gogotsu;
baina proiektu horren parte da,
baita ere, komunitate geroz eta
zabalagoa eta anitzagoa osatzea.
Ez da erraza. Betiko borroka da.
Baina indarrak hor jarri behar ditu-
gulakoan gaude, eta gaur gure
komunitatearen parte direnekin
batera egin nahi dugu hori ere,
noski. Telefonozko “bezero
bilaketatik” ihes egin eta tokian
tokira jo nahi dugu, bertan
egon, leku bakoitzeko errealita-
tea ezagutu eta hortik abiatuta
eragin, modu batean edo bes-
tean, lekuak agintzen duenaren
arabera. Gogoz gaude, lagun-
tzeko, elkarlanerako, eta *darpidegun*
guztiok Argian, Kike Amonarrizek
Argia Eguneako bazkaloste umore-



Zubiaurrenea, 5 behea

USURBIL

☎ 943 37 10 42



tsuan egindako aditz konjugazioak dioen moduan.

Baina 2014ko Argia Eguna ez da beste mugarri bat gehiago. Atzo bezala, bihar ere argituko du egunak eta lanean jarraitu beharra dago. Prozesu berri baten oinarria jarri besterik ez dugu egin, eta ondoren dator lan gogorra; astero gure irakurleari ahalik eta edukirik onenak banatzen jarraituko dugu, eta eurekin batera herrietara, auzoetara, elkarteetara salto egiteko asmoa daukagu, elkarrekin gauzak antolatzen hasi, proiektuak martxan jarri. Ez dezagun ordea Argia Egunean ereindakoa alde batera utzi; ikus dezagun segidako irudiotan zer eman zuen egunak. ■



Jai giroa nagusitu zen Usurbilen. Ondarroako Andrabandak animatu zituen kaleak arratsaldean (ondoko orrian). Jakoba Errekondok, Josu Tellabidek eta Jon Ander Galarragak Usurbilgo inguruak eta historia/istorioak azaldu zizkiguten ibilaldian (goiko irudian). Herriaren sorrera, familia ezagunak, herri administrazioa, auzoak eta erribera izan zituzten hizpide, besteak beste. Nendo Dango tailer ekologistan zuhaitz haziak hartu eta buztin bolatan bildu zituzten (ezkerrean). Zangozako Oinez Basoa osatzeko izango dira bola batzuk, eta besteak Zubietako errauste planta egitera zihoazen lurretan botako dituzte.



Kale Nagusia, 10
20170 Usurbil
☎ 943 37 45 95

Argiazaleon Topaketa

Usurbilgo frontoian bilduta, lankide, lagun, kolaboratzaile, harpidedun eta irakurleekin patxadaz hitz egiteko tarteren bat hartu nahian eseri ginen eguerdian. Gorputz eta buru geureganatzeko Asisko Urmenetari eskatu genion laguntza, eta lehendabizi hitz eta irudi bitartez joan ginen marrazten ARGIA. Suzko gezia jaurtitzeko prest, pertsonaia mitologiko itxurako emakumea izan litekeena. Babesa. Indarra. Bizia. Sua. ARGIA.

Eta hasi ziren gure lau kide, irudiaren elementu bakoitza, banan bana askatu eta azaltzen. Sutan dagoen gezia, esan zuen lehendabizi Lander Arbelaitzek. Euskarari oinarri duen komunikabidea irudikatu zuten horrela, eta ekarri zituzten gogora hedabide elebidunen Euskal Herrian euskarari egindako ekarpenak: *Euskaldunon Egunkariaren* sorreran ARGIAK izandako paperetik hasi eta gaur interneteko webgunean eskaintzen diren euskarazko hamaika dokumentu eta materialetaraino. Baina suzko gezia ere puska txikiagotan egin zuen Nora Barrosok eta begiratu zion puntari. ARGIAren independentzia, burujabetza. Baina nola jaurti gezia arkurik gabe? Nola zabaldu ARGIA harpidedunik gabe? Nola egin ARGIA independentea babes ekonomikorik gabe? Kolaboratzaile, irakurle, gabe? Eta geroz eta handi eta sendoago egin arkua, su jaurtitzaila indartsuagoa izango da, "ARGIA egiten dugun guztiok baikara tiratzaileak", aipatu zuen Esti-txu Eizagirrek.

Zaldi gorputzarekin irudikatu zuen emakumea Urmenetak, oinarri sendokoa, eta gaurko hogeita sei langileak jarri zituzten hezurduran. Goitik beherako gorputz egituraketa, baina, buelta eman nahi izan zioten enpresaren estruktura hitz egitean, horizontaltasuna izan baitzen hitz gakoa. Soldaten parekatzea eta gardentasuna. Eta hori lana bizitzeko eta bizitza lanarekin uztartzeko moduarekin lotuta dago,

baloreetan oinarritutako lantokian lan egin nahi baitugu. Eta balore horiek dira gezia jaurtitakoan erre nahi ditugun elementuak, eta Argiazale guztiok balore horiek jomuga izatea nahi dugu.

Iraitz Agirrek ireki zion bidea talde txikitik egiteko prestatutako eztabaidari, eta guztion esku utzi zuen Argia zabaltzearen konpromisoa, bakoitzak bere lekutik.

Hiru galdera bota genizkion irakurleari: Nolakoa da zure harremana ARGIArekin? Zeintzuk dira sail gogokoena eta zer botatzen duzu faltan? Zer egin liteke auzoetan, herrietan, ARGIA hurbildu eta zabaltzeko? Eta ireki zen eztabaidarako txanda. Bospasei laguneko talde txoetan banatuta, langile, kolaboratzaile, irakurle, bakoitzak bere ideiak eta ikuspuntuak komentatzeko aukera eduki genuen. Puntuz puntu bildu genituen ateratako proposamen eta iritziak, eta ondoren mahai bakoitzeko dinamizatzaileek guztioi azaldu zizkiguten eztabaidatutako gaiak, aukerak eta proposamenak. Oso kontutan edukiko ditugu. Eskerririk asko, beraz, orduan esan genuen moduan, parte hartu zenuten guztiak.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba
Atallu Industrialdea 26 Usurbil 20170 Gipuzkoa

- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA

Asteleheneetik-Ostiralera: 9tatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14

www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

<https://www.facebook.com/alkartasunausurbil>



Berrehun bat lagun bildu ginen bertako produktuekin osatutako menuaz goatzeko. Egun aproposa zen bertako elikagaiekin egindako bazkari bat antolatu eta beste eredu bat bultzatzeko: zuzeneko tratua, bitartekari gabekoa, osasuntsua eta ekonomia jasangarriarenzkoa. Goian, otordurako mahaiak prestatzen. Bazkalosteko umorea ere etxekoa, noski. Kike Amonarriek eta Asisko Urmenetak girotu zuten postrearekin batera gunea, eta ez zen inor gelditu zirikatuta gabe (eskuinean). Hitzen jolasean artista biak ala biak, *Zeruko Argiaren* lehen diseinuetatik 2014rainokoak erreparatu zituzten, urteen eta aleen arteko harremanak zalantzan jarriz. Txosnako produktu gehienak ere bertakoak izan zitezten apustua egin genuen, eta gau parterako nahiko demostratuta geratu zen ederki sartu zitzaioala bati baino gehiagori.





serigrafiaiosu.com

Kamiseten inprimaketa
Industri nahiz iragarki serigrafia
Laser markatzea
Binilozko pegatinak
Boligrafoak, etb...

serigiosu@serigrafiaiosu.com • 943 37 19 54 • Usurbil

Nortasun agiri arrotzen jaurtiketa

Katalunian edo Asturiasen ezaguna, Usurbilgo dema plazan nazioarteko lehen nortasun agiri arrotzen jaurtiketa antolatu genuen. Parte-hartze altua izan zuen arratsaldeko jokoak, eta gogotsu jardun ziren denak, baina baten bati eskuetatik alde egin eta atzera bota zuenik ere egon zen.

Nazioarteko nortasun agiri jaurtiketako garale izan zen Iñigo Uribecheberria azpeitiarra, 29,6 metroko tiraldia eginda. Berarekin hitz egiteko aukera izan genuen eta esan zigun ez dela botatzen duen lehen aldia, baratzean entrenatzen ibilia dela lehenago. Badaezpada Arianne Unamuno bikotekidearen txartela jaurti zuela onartu zigun, baina ez bere euskal identitatea zalantzan jartzen duelako, aurreko entrenamendu batean berea konpostagailuraino iritsi eta barruan galdu zitzaiolako baizik.



Goian, irabazlea nortasun agiria jaurtitzen. Behean, Usurbilgo Argiaren lagunei omenaldia, eta bertso-saioan Argia Egunerako prestatutako bertso-papera (eskuineko orrialdean) kantatzen.



kaffa
KAFETEGIA GOZOTEGIA

Errekatziki Kalea 2 - 20170 Usurbil
☎ 943 243371

SAIZAR

Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

SAIZAR
Sagardotegia www.sidrassaizar.com

Gure balioak bertsoan

Jasangarritasuna

Zurezko pieza multzo bat mahaian gaztelu forman jarria, azken punturik bako bertsoa mikrofonora ekarria, ingurumena, ekonomia, herri baten aldarria... Zimendu sendo gabe luzera deus ez da jasangarria, oroit gaitezen lantzeaz gure proiektuen oinarria.

MIREN AMURIZA



Lurraldetasuna

Nork esan zuen zazpigarrena izango zela Araba? Norentzat daude iparraldean Aiziritze eta Sara? Bat zergatik da Antiguokoa bestea Nafarra bada? Estadistika ta datuetan denak kabitzen al gara? Ez ahantz norbere esku daudela hitzak eta begirada.

SUSTRAI COLINA

Parekidetasuna

Zenbat ta zenbat aldiz esana: "Emakumeak etxean" Orain harritu egiten gera holakoak aditzean. Hala ere harro ezin sentitu adibidea jartzean azalpenetan gabiltzalako pauso txiki bakoitzean edo gordeta besteak gaizki egin duena(re)n atzean.

ROSI LAZKANO

Ekonomia soziala

Ekonomiaz zenbat kalaka, zenbaki, indize, txosten... Goitik beherako egituretan boterea da egosten. Saia gaitezen geure sosaren burujabetza erosten, truke-sistemen eta merkatu txikien mozkinen pozten: gure amonek zekiten eran patrika-zuloak josten.

UXUE ALBERDI

Euskalzaletasuna

Herriak behar du parekide dadin askea gorputza Naturarekin jasangarria kalteko da zapalkuntza Ekonomia sozialduna ez giltza gutxiko kutxa. Baina gureak jarraituko du izaten herri bat hutsa, horiek denen ardatz ipintzen ez den artean hizkuntza.

JULIO SOTO

ARGIA

AMETS ARZALLUS

Aktualitate berdintzailea dabil frenesiak jota, txio baten zain politikoak zer lelokeria bota, tiro baten zain lur urrunetan noiz hasiko elkar joka, eta ARGIAk, ez izatea, hori du bere erronka, mundua beste denek bezala txehetzen duen errota.

Egunkariak goizean kaixo eta iluntzean aio astekariak nahiago dute zazpi egunez behin jaio, berandu heldu liteke baina askotan berdintsu zaio, arnasa hartu nahi duenari ARGIAk hori damaio: abiadura txikiko tren bat gure hitzaren karraio.

argia ren lagunak

Baduzu norekin joan

AUTOBUSAK
Aizpurua

943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es
info@autocares-aizpurua.es